



Abadetxea etxebizitza

Aldakerak:

Ahozkoa: Abádetxie



43° 11' 9"

2° 35' 29"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

XX. mende hasierako etxea da, bi solairu eta hiru ardatzetan antolatutako fatxadaduna, eredu klasikoan antzera. Baina hauetan egoten den simetria eta berdintasunaren aldeko gustua hautsi egiten dute fatxada nagusiko balkoiak eta azpialdera ematen duen fatxadako leiho luzeak. Hala ere, etxean aipatzekoak dira bao edo lei-

hoen neurri ederra eta materialak. Eraikitzeko harlangaitza erabili zuten, juntura guztiak luzitu eta zurituta. Eta kontrastea eginaz, silarri bereziak usatu zituzten kantalekuak eta baoen ertz guztietan, baita leihoen arku behekoen dobeletan ere. Berezitasuna da silarrien akabera latza, leundu barikoa, inguruetan izan ezik.

toponimia

Abade, etxe eta artikulua osatutako toponimoa. "Abadearen etxea" esan gura du eta izen generiko legez ere erabiltzen da ahoz. Izena arrunta eta ezaguna bada ere, ez da uste bezain "arrunta". Gutxi baitira, lanbidea+etxe, egitura duten etxe izenak, euskaraz ohikoagoa baita Abadena modukoak erabiltzea. Azken hau, Abadena, zaharragoa da eta 1704an ageri da Getxo eta Ibarrangelun, esaterako. Abadetxea, berriz XX. mendean egin zen arrunta Bizkaian. Dokumentazioan gaztelaniaz agertzen zaigu euskararen bazterkeriaren adierazgarri.



Andikoa aldean XX. mende amaieran / Berriz Iruditan